

Uhinak beti gazi

IZENGOITIA: EKAI

Martinak ez zekien zenbat neurtzen zuen gezur batek, ezta hozkailuan zenbat leku hartzen zuen ere. Inork ez zion sekula argitu gezurrak urdinak edo gorriak ziren, udaberrikoak edo udazken partekoak, baina gauza bakarra zekien: gustuko zituela oso. Bazen, gainera, gauero sabelean zirrara sortzen zion bat: aitonari kontatzen zion tripako minarena.

*-Gaur ere nahasita al zaude, ttiki?—*galdetzen zion aitonak barre murritzarekin.

Olatu arteko txalupa bezala, maindire artetik Martinaren bi begiak erne zuzentzen zitzaizkion aitonari, istorio berri baten irrikaz. Agureak Ternuako bakailaoa ez ezik, hamaika kontu ere gordeak zituen memoriaren gatzaz estalita, denborak ez usteltzeko moduan. Gaua joan, gaua etorri, tripako mina aitzakia bihurtzen zen aitonaren hitz zimurtuek Martinaren belarriak laztan zitzaten. Zenbat pasadizo entzun ote zituen neskatoak tripako min amaigabe haren baitan...

-Aitona, kontatu berriz ere sagardoarena!— erregutzen zion maiz, eguna ilundu orduko.

Orduan aitonak etxeko sagardoa kupeletan sartu eta ontzietan nola eramaten zuten kontatzen zion. Lantzean behin, izarrez beteriko gauetan bereziki, dzanga-dzanga edalontziak husten zituztela arrantzaleek eta horri esker atera zirela bizirik makina bat marinel euskaldun Ternuako ur izoztuetatik. Askok jakin gabe, sagardoak gaixotasunetik babesten zituelako; itsasoan dena gazitzen baitzen, baita ametsak ere.

Adi-adi, ordu beteren luze-laburrean, bi belarri txiki haiek entzundako guztia xurgatzen zuten, itsasoko belakiek ura bezalatsu. Horrela, tripako mina maindire artean baretzen zen eta aitonak oherako bidea hartzen zuen, loa iparrorratz zuela.

Laurogei urteko itsasargia behin betikoz itzali zen arte.

Txikia zen Martina aitona zerura joan zenean, baina alde egin aurretik, badaezpada bere lekukoa hartuko zuen laguna utzi zion gizon onberak. *Egunen batean, Ternuara joango naiz arrantzara, baina panpin hau izango duzu lagun, laztana.* Martinak, aitonagandik hitz haiek entzuten zituen bakoitzean, panpinari begiratzen zion, eta gehiegi ulertzen ez zuen arren, buruaz baietz erantzuten zion. Bazekien aitonak arrantza biziki maite zuela, gauetan izarren azpian kantuan aritzea gustuko zuela, eta joaten bazen ere, luzatu gabe itzuliko zela lehorrera, baserrira. Horregatik, ez zuen negarrik egiten; jakin bazekielako arrantzan aspertzen zenean, *Tuku-Tuku* bere itsasontzian itzuliko zela berriz ere etxera, Martina zenbat zentimetro handitu zen ikusteko gogoz. Halaxe, maiatzeko egun batean, ama ohera etorri zitzaion gau izartsu hartan, aitona Ternua aldera abiatu zela ulertu zuen neskatoak. Panpina bere magalean hartu eta leihotik ageri ziren izarrei begira, promes egin zion aitonari: gauero orraztuko zuela panpinaren adats luzea, bera berriz ere etxera itzuli arte.

Baserriko bizitza zoragarria zen, askea bezain alaia, baina ahoak estaltzeko gutxi ematen zuena tamalez. Lanak hamalau baziren, sosak beti gutxiago. Horregatik, Martinaren aitak bere borondatearen kontra itsasoratu behar izan zuen, familia aurrera aterako bazuen. Arrantzan ere, hala eta guztiz, dena ez zen urre gorri.

-Laister itzuliko zara, aita? —galdetu zion Eugeniori, zakotea prestatzen zuen bitartean.

Orduan aitak besarkadaz estutu zuen alaba, sekula ez bezalakoaz, berak uste baino lehen etxeratuko zela hitz emanez. Gainera, neskatoari ama zaintzeko ardura emana zion aitak eta Martinak, handi sentitu nahi horretan, zintzo portatuko zela agindu zion serio-serio. Oiloen arrautzak biltzen egunero lagundu eta ardien lanak egiten ere amari esku bat botako ziola, alegia. Baserrian adin guztietarako lanak eta zereginak baitzeuden, lurrak eta abereek bizitzeko gutxi ematen bazuten ere. Horrela, bakoitzak bere funtzioa betetzen zuen etxean eta Martinak, jolas moduan hartzen zituen kizkiaz egindako sagar-bilketak edo ardiak larretik larrera eramanez pasatako arratsaldeak.

Estreinakoz itsasoratzeko unea iritsi zenean, Eugenio egunsentiarekin batera abiatu zen atunetara, inor esnatu gabe. Arrantza-aparailuak hartu eta isilik zeharkatu zuen etxeko atea inor ez esnatzarren. Beldur zen, beldur bere aita propioak askotan kontatua zion mende hasierako galernaren istorioaz sarri gogoratzen zelako. Nola esaten zion aitak itsasoaz sekula ezin fida zitekeela marinela, eta hobe zela goseak egotea etxean alarguna eta umezurtzak uztea baino. Horregatik, ez zuen lehenago arrantzara abiatu nahi izan Martinaren aitak, aitonak esaten zuen bezala, itsasoak asko ematen zuelako, baina kendu ere gogotik.

-Nora zoaz hain goiz, aita? —galdetu zion metrora iristen ez zen itzal txikiak baserri atarian.

Atzera begiratu eta hantxe zen Martina, oinutsik, aitonak oparitutako panpina besapean sendo eusten zuela. Eugeniok, bizitzan lehenengoz, aukeratzeko garaia iritsi zitzaiola ikusi zuen. Familia edo itsasoaren arteko lehian balantzak ze aldetara egin behar zuen erabaki. Baserria edo arrantzaren arteko borrokan arrazoia zeini eman behar zion argitu. Erabaki ezin hartan, ordea, itzal txiki hura hurbildu zitzaion zorte ona opatuz, gehien maite zuen hura aitari luzatzen zion artean: aitonak emandako panpina.

Orduan Martinaren aitak zakotea lurrean utzi eta muxu handi bat iltzatu zion kopetan alabari. Inork sekula eman gabeko lezioa eman ziolako neskatoak. Bere txikiaren handitasunen, lastoa eta gariaren arteko aldea erakutsi ziolako hitz askoren beharrik gabe aitari. Panpina lurrera erori zen ezustean. Martinak ez zuen zirkinik ere egin hura jasotzeko. Ez zuen panpinaren beharrik, jada. Ez zen bere pozaren iturri aitarekin bakardadean zen une berezi hartan. Bere horretan utzi eta aitaren besoetan sartu zen berriz ere baserri barrura. Malkorik ez. Gehien maite zuena ez zegoen lurrean, lehorrean baizik betiko.